

Mikel Zalbide, euskaltzain oso



Ekainaren 2an egin zuen Mikel Zalbidek bere sartze-ekitaldia Euskaltzaindian, euskaltzain oso izendatu berriak.

Izendapen batek izendatuaren lanak eta merituak nabarmentzen eta bistaratzen ditu. Zenbat eta jasoagoa izendapena, orduan eta nabarmenagoak merituak. Bistan eta nabarmen daude Mikel Zalbiderenak, euskaltzain oso izendatu dutenean. Nabarmen daude, eta ez daukagu nabarmenak nabarmendu beharrik.

Gure artean, berriz, lankidea aipatu dugu, eta "zaharrak berritzeko" aukera izan dugu, aspaldi bateko Mikelen lanak gogoratzeko aukera, eta, bidenabar, Esterlines kaleko "UZEI zaharra" —hala esan ohi dugu— gogoratzekoa.

Ez ziren haiek Mikel Zalbideren lehen lanak (Elhuyar taldetik zetorren Mikel); ez dira azkenak ere, bistan da; baina haiek etorri zaizkigu burura. Fisikaren eta Kimikaren, eta Matematikaren hiztegia eta hizkera lantzen oroitu dugu, eta egiteko horietan ziharduten talde zabalen eztabaidak gidatzen; eta, maiz, eztabaidak gozatzen eta baretzen, hainbat unetako beroaldiak bere onera ekarri nahirik (dakienak daki nola berotzen garen hitz baten lekuan beste bat erabili behar dela esaten zaigunean, edo gustuko esapide bat baztertzeko digutenean).

Une-uneako kontuak, xehe eta xorrotxak, argitu eta erabaki beharra egoten zen, eta Mikeli ere gertatu zitzaion hala egin beharra; baina bazuen Mikelek erabakiak hartzekoa baino gehiago estimatzen genion dohaina: begiak altxa, begiratua jaso eta ikuspegi zabala begien aurretik ez galtzekoa, une-uneako puntuetan ez itotzekoa.

Hitzak eta terminoak lantzean, ezin utzizkoa zen hizkera ere lantzeko ardura, terminologia soilean geratu ordez, gaia azaltzen baitzuten orduko hiztegiek, kontzeptuak garatuz. Gaiak modu akademikoan idazteko tresnak eskaini nahi ziren, baina bestelakoek ere kezkatzen zuten Mikel: adibidez, formula matematiko trinko bat nola "esaten" den euskaraz; edo, maila xumeagoan mintzatzeko, bat da eragiketa aritmetikoak egiten jakitea, eta bestea egiten dena euskaraz adieraztea, euskarazko perpausetan esatea.

Adierazkizun berriak pilatzen ziren mahai gainean edo esku artean, asko eta asko euskaraz inoiz adierazi gabeak (ikasketa guztiak erdaraz eginak baikin denok). Eta zentzuz jokatu ahal izateko, euskarazko baliabideak ikasi eta ezagutu beharra zegoen, besteak beste direla. Gogotik heldu zion Mikelek bide horiek ikasi, landu, azaldu eta talde-

lanean osatzeari, bateko eta besteko ekarriak pilatuz. Famatuak izan dira gure artean horrela bideratu zituen bilera haietako batzuk, jende asko elkartu zutenak bizpahiru egunez, Gabonetako oporrak baliatuz: eratorriak moldatzeko bideak landu ziren, eta maileguak egokitzeko moduak, etab. Dokumentu batean bildu ziren ondorio nagusiak, eta gure laneko eskuliburua izango zen urteetan, gure "dotrina". (Izenak ere urteetan iraungo zuen: Gabonetan egin ziren bilerak, baina deitu, "Bagonetako bilerak" deitu izan diegu, ondorioen dokumentua makinaz jotzean egindako okerrari eder iritzita, inondik ere).

Mikelek, ordea, ez zuen horrenbesterekin etsi, eta informazioa biltzen eta egituratzen jarraitu zuen: zenbat mila ziren ez dakigu, baina badakigu milaka fitxatan jaso zituela euskal testueta hitz-elkarteak, eratorriak eta maileguak, testuinguru eta guzti, dozenaka liburu irakurriz, zahar eta berri, hango eta hemengo. Aztertu egin zituen, eta sailkatu, eta eskaini.

Hala, liburu bihurtu zuen, liburu mardul, maileguen ingurukoa: *Maileguzko hitzak, ebakera eta idazketa*, UZEIk 1984an argitaratua. Euskarak beste hizkuntzetatik maileguan hartzen dituen hitzak egokitzeko bideak ikus litezke hor, ongi xehatuak eta ongi dokumentatuak: eskura zeuden testu, gramatika edo hiztegieta aukerak aztertuz eta sentiberatasun edo jokabide desberdinak konparatuz, sistema koherente bat proposatu eta bideratu zuen, salbuespenak ahaztu gabe.

Sailka antolatu zituen hitz elkartuak ere. Ezagunak ziren lehendik sail horietako batzuk, izen eta guzti; baina berriak ere seinalatu zituen Mikelek. Hau da: sailkapen berria proposatu zuen, gerora bide luzea egin duen sailkapena. Sail horien berri emanez eta sail bakoitza aztertzeko metodologia iradokiz, Euskaltzaindiaren LEF batzordea abiarazi zuen, eta eskura eman zizkion batzordeari adibideak nahiz gainerako lantresnak. Euskaltzainekin eskuz esku, urte-sailtxoa ari izan zen batzordea hitz-elkarteak aztertzen lehenik eta hitz eratorriak ondoren. Izan ere, euskararen erabideak ongi ezagutu beharra sumatzen baitzuen Mikelek, bide berriei ekitean zuzen jokatu ahal izateko; forma osatuen osaera zaindu beharra ikusten baitzuen, itu-itsuan eta nora gabe ez ibiltzeko. Damurik, ez ziren ondorio edo emaitza guztiak argitaratu, baina eskura daude *Hitz-elkarketa* saileko hiru liburuki, Mikeli ukituak baino frankotxoaz gehiago zor diotenak.

Aipamen soilean uztekoa ez bada ere, aipatu beharra dago Euskaltzaindiarentzat diseinatu zuen proiektua, hiztegieta bere osoan egituratzeko eta oinarri sendoen gainean eraikitzeko: Tradizioa jaso eta ezagutzea (Orotariko Euskal Hiztegia), Hizkera espezializatu(ago)eta premia eta jokabideak aztertea, Euskal hitzen erabideak ikertzea. Horien guztien ondorioeta bat, eta ez hutsalena, Euskaltzaindia erabakitzen ari den Hiztegi batua da.

Euskararen barrura begirakoak bakarrik gogoratu ditugu hemen, edonork dakienean ez dela horietan agortzen Mikel Zalbideren lana eta emana (adibidez, zenbat ordu eskaini ote dizkio, eta nolako jakin-mina, euskararen edo euskarazko irakaskuntzaren alderdi historikoari edo soziologikoari?). Guk, berriz, aspaldiko eta orainagoko lankidea izan dugu hizpide.

Beharbada, ez da txukuna, eta gizalege kaxkarrekoa izango da seguru asko... baina aitor dezagun: halako harrotasun-puntu batekin hartu dugu UZEIn lankide izandako laguna euskaltzain oso aukeratu izana, lankide izandako Ana Toledo eta Andoni Sagarna lagun konpainian. (Bego inor gutxiesteko asmorik gabe esana).

Zorionak, Mikel, eta lan on!

Jose Antonio Aduriz